



EMAKUMEEN BATZORDEA SORTZEA HELBURU

Leitzaldeko Bilgune Feministak ikasturte berrirako erronken berri eman du: emakumeen sarea indartu nahi dute 7

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2009-10-24

VIIURTEA 1.809.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Atzoko inaugurazioan Marimi Ugaldea alkatea eta Carmen Amezttoi herritarra. E.MAIZ



R.CALVO

JON MINTEGIAGA 'EL FILTRO' LIBURUAREN EGILEA

«Betikotu egin nahi genuen ahaztutako istorio handi hau»

IBARRA 1994ko abuztuan Montevideon izan zen sarraskia du ardatz kaleratu berri duen lanak 6

MUSIKARIAK SORTZEKO BEHARREZKO TXOKOA BADUTE HERRITARREK

IRURA Atzo inauguratu zuten Musika Eskola berria, Kulturunean; 225.000 euroko laguntza jaso du Udalak proiektu honetarako 3

Eskualdeko
pilotariak
Lau t'erdikoan
lehiatuko dira
gaur eta bihar

PILOTA Bengoetxea Aritz
Lasaren aurka, eta Saralegi
Olaizolaren aurka ariko da 5

Ordu aldaketa



Ordua
aldatuko da
gaur gauean:
03:00etan 02:00etara
atzeratu behar dira erlojuak

Gure baserrietik, haragia zuzenean etxera

5 Kg-ko sorta 58€tan (banaketa DOAN)
Xerrak (hiru mota), haragi xehea, saiheskia, zankarra, gisatua, txuleta.

Proba ezazu, egin eskaria:

943-30 43 32 (ordutegia: 9:00-17:00) edo saski@lurlan.org
Dendak: Bulevard 7 eta San Martin merkatuko C4 postuan (Donostia)

Remiri Herri Omenaldia

Eskerrik asko Villabona!

L Laburrak

Sasikoa taldea izango du aurkari gaur Ibarrek

IBARRA ■ Ibarra, areto futbol taldeak Durangon jokatu du gaur. 19:30ean hasiko da partida, eta Landako kiroldegian izango da. Sasikoa taldea izango dute aurkari oraingoan. Eskualdeko talde guztia lehiarako prest izango da.

Kirola izango da aurtengo argazki lehiaketako gaia

ANOETA ■ Udalkar martxan jarri du jada 2010eko egutegia osatzeko argazki lehiaketa. Aurtengo gaia kirola izango da. Anoetan eroldatuta daudenek hartu dezakete parte lehiaketan, bakarka nahiz taldean. Argazkiak aurkezteko azken eguna hilaren 30a izango da, eta Anoetako udaletxean edo kiroldegian utzi beharko dira. Bestalde, jasotzen diren argazkiak ikusgai jarriko dira erakusketa batean, azaroaren 9tik 16ra bitartean, kiroldegian, Kirol Astearen baitan.

Alurr dantza taldekoak Zerainen izango dira gaur

IBARRA ■ Alurr Dantza Taldea hasi da denboraldi berriko emanaldiak egiten. Asteburu honetan esaterako, Zerainen izango dira, kultur astean parte hartzeko. Pilotalekuan, 18:30ean izango da saioa. Orain arte egin izan dituzten dantza batzuk aurkeztuko dituzte bertan, eta dantzari gazteak eta beterranoak ariko dira. Oa kultur elkarteak antolatuta duen kultur astearen barruan izango da emanaldia.

Langabetuentzak ikastaro bereziak, Elduaieen

TOLOSA ■ Elduaieen Hizkuntza Eskolak, krisiari aurre egiteko asmoz, ikastaro bereziak antolatu ditu. Hala, ikasle bakoitzak eskolak berak eskainitako diru laguntza jasoko du, ikastaroaren kuotaren %40aren onuradun izanaz. Ikastaro hauek, nagusiki, langabezia edo EEE egoeran aurkitzen diren eta eskualdean bizi direnei zuzenduta daude, 70 orduko iraupena dute eta azarora eta ekainara bitartean abiaraziko dira. Izena emateko epea hilaren 26tik 30era bitartean egongo da zabalik, telefonora deituz: 943 67 47 33.

Falangeko bost lagun atxilotu dituzte, azken erasoengatik

Tolosa ■ Nafarroan izan dira atxilotetako; besteren artean, Lasa eta Zabalaren monolitoea erasotu zutela uste du Guardia Zibilak.

ERREDAKZIOA

Guardia Zibilak lau lagun atxilotu zituen atzo Nafarroan, eta beste bat Aragoian (Espainia) Falangetaldekoak zirelakoan. Honenbestez, ikertzen ari dira Euskal Herrian azkenaldian izan diren mehatxuak, pintaketak eta abar euren egin ote dituzten alaez.

Barañainen bi gizonezko atzeman zituzten, eta Orkoien eta Sumbillan bana. Aragoian atxilotu zuten gizonezkoa Irungoa da. Atxilotuen etxeak miatu zituzten, eta bertan gerrarako munizioa, arma zuriak eta nazien sinbologia-dun hainbat objektu aurkitu zituen Guardia Zibilak. Erasoa jaso dituzten Gipuzkoako eta Nafarroako herrietako mapak ere bereganatu zituzten.

Irailaren 22an Falange y Tradic



Lasa eta Zabalaren omenezko monolitoea margotu zuten abuztuan. BERRIA

cionez bere gain hartu zituen iazko urritik Euskal Herriko hainbat herritako kaleetan eta oroitarrietan egindako pintaketak eta mehatxuak, Efe berri agentziara igorritako ohar baten bidez. Besteak beste, Tolosan Lasa eta Zabalaren oroitarriei eginitako pintaketak haiek egin zituztela zioen. Haren bitartez, Enrique Rodriguez Galindo poliziaburua «omendu» nahi zutela adierazi zuen Falange

y Tradicionez. Galindo 71 urteko kartzelara zigortu zuten Joxi Lasa eta Joxean Zabala bahitu eta hiltzea egotzita.

Iazko urritik hona, eskuin muturreko 32 «eraso faxista» egin dituzte Euskal Herri osoko hainbat herri eta hiritan. Hala ohartarazi zuen Lau Haizetara Gogoan koordinakundeak. 25 bat hartu zituen bere gain Falange y Tradicionez taldeak.

Isidro Larrañaga akordeoi orkestra Beasainen entzuteko aukera, bihar

Tolosa ■ Udazken kulturara ari dira ospatzen Goierriko herrian, eta tolosarren emanaldia izango da 13:00etan, pilotalekuan.

ERREDAKZIOA

Isidro Larrañaga akordeoi orkestrakoek kontzertua eskainiko dute bihar, Beasainen. 13:00etan hasiko da ekitaldia, eta Beasaingo Udazken Kulturaren baitan antolatuta dute. Emanaldia Gernika pasealekuko pilotalekuan izango da.

Garai hauetan, krisia dela eta, oro har, «herri gehienetako kultur eskaintza murriztu egin da, eta aukera gutxi daude biharkoa bezala-



25 lagunek osatzen dute Isidro Larrañaga akordeoi orkestra. REBEKA CALVO

ko kontzertuak entzuteko». Hori dela eta, akordeoi orkestrakoek eskualdeko herritar guztiak gonbidatzen dituzte emanaldiaz gozatzera.

Ixitxo Larrañaga zuzendaria- ren hitzetan, «gogo handiarekin goaz. Honek aukera ematen digu entsegutan egindako lana jendaurrean erakusteko. Pozgarria baita artistarentzat, bere lana erakustea».

Guztira adin tarte oso ezberdinetako 25 lagunek hartzen dute parte Tolosako orkestra honetan, zuzendaria barne.

K Kirol jarduera

Gaur larunbata, Tolosan Euskal kirolaren eguna

■ Usabalgo goiko kantxan, gimnastika erritmikoa izango da 16:00etatik 19:00etara bitartean.
■ Usabalgo goiko kantxan, areto futboleko partidak, 20:00etatik aurrera.

Areto futbola

■ Usabalgo beheko kantxan, 10:30ean, jubenilak: Laskorain-Eskolapioak.
■ Usabalgo beheko kantxan, eskola kirolaren baitan, kadete nesken partida izango da 19:30ean.

Eskubaloia

■ Usabalgo beheko kantxan, 12:00etan, infantilak. Tolosak jokatuko du bertan.
■ Usabalgo beheko kantxan, 16:00etan, juniorrak: Tolosa-Urola.

Futbola

■ Usabalgo futbol zelaian, 09:30ean, infantilak: Tolosa CF-Aralar Intxurre.
■ Usabalgo futbol zelaian, 11:00etan, kadeteen lehendabiziko mailan: Tolosa CF-Hernani.
■ Usabalgo futbol zelaian, 12:30ean, infantil txikien mailan: Tolosa CF-Real Sociedad.
■ Usabalgo futbol zelaian, 16:00etatik aurrera, emakume kadeteen futbol zortzian: Tolosa CF-Mariño.
■ Usabalgo futbol zelaian, 17:30ean, infanilen ohorezko maila: Tolosa CF-Beasain.
■ Berazubiko futbol zelaian 16:30ean, lurraldeko ohorezko mailan: Tolosa CF-Trintxerpe.

Saskibaloia

■ Usabalgo goiko kantxan, 10:30ean, kadete mutilak: Bide Bide Ibiza-Ordizia. Infantil mutilak: EgoTake-Easo Urkitza.
■ Usabalgo goiko kantxan, 12:00etan. Kadete mutilak: Tovar-Internacioal B. Junior mutilak: Tolosa-Legazpi.
■ Usabalgo beheko kantxan, 18:00etan. Seniorrak: Bide Bide Ibi-za-Legazpi.

Rolleski

■ Belate pasealekutik abiatuta, Hernaldeko Rolleski igoera jokatu- ko da. 16:00etan irteno dira parte-hartzaileak iteera puntutik.

Bihar igandea, Tolosan Euskal kirolaren eguna

■ Seigarren euskal kirolaren eguna ospatuko da Tolosan, 11:00etatik 15:00etara bitartean. Hainbat ekitaldi izango dira goiz guztian zehar, Usabal kiroldegian.

Trabesia

■ Olarrain auzoan 10:00etatik aurrera, Abraham Olano XXI. mendiko bizikleten trabesia herrikoia jokatuko da.

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserrira - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Ikaserraz ikastaro berriak egiteko aukera Adunako KZgunean

Aduna » Bi orduko ikastaro hauetan izena emateko udaletxeko telefono zenbakira deitu behar da.

E. MAIZ

Adunan, KZguneak, Ikaserraz ikastaro berriak antolatzen dituzte eskaini du. Ikastaroren batean izena emateko, udaletxeko 943692571 telefono zenbakira deitu besterik ez da egin behar.

20 ikastaro ezberdin

Guztiak, bi orduko ikasteko ikastaroak dira eta era errazean ikasteak. Sare Sozialak: ezagutzen dituzun pertonekin nola konpartitu eta komunikatu. Skype Deiak: bideoa eta bat-bateko mezularitza dohainik erabiltzeko Internet bidez. Google Tresnak: Googlek eskaintzen dizkizun produktuak; Gmail, Calendar, Maps... Blogger: zure iritzia eman eta beste erabiltzaileekin konpartitzeko aukera. Google Maps y Earth, edozein herrialdetako helbide, errepide, leku eta negozioak nola bilatu eta haie-tara nola heldu. Zuhaitz Genealogikoa: zure antzinakoak ezagutu eta zure zuhaitz genealogikoa egin dezakezu. Megaupload: zure artxiboaren karga eta deskargak bildu eta kudeatu ditzakezu. Softonic: edozein motako programak, jolasak... deskargatzeko aukera eskaintzen du. Flickr: zure argazkiak eta bideoak elkarbanatu ditzakezu. Picnik, zure argazkiak berri-ukitu, konpondu, efektu bereziak aplikatu etab. Ikus-entzunezkoak: munduko edozein lekutatik zure ordenagailuaren bidez irati kateak entzuteko eta telebistako edozein kanalak ikusteko aukera.

Eta gainera beste hauek: Youtube, Google Docs Google, eBay, Software Libre, Google Sites, Wikipedia eta WiFi. Teknologia berrietara gerturatzeko aukera paregabea eskaintzen du KZguneak Adunan. Zer diren, zertarako balio duten eta nola erabiltzen diren erakutsiko diete bertan izena ematen dutenei.



Loatzo Musika Eskolakoek ere beraien hitzak esateko aukera izan zuten. E. MAIZ

Musika Eskola berria bost hilabete eta gero zabalik

Irura » Musika eskola berriaren inaugurazio ekitaldia izan zuten atzo. Astelehenetik aurrera, ateak zabalik izango ditu.

ENERITZ MAIZ

Atzo arratsaldean, Irurako Musika Eskola berria inauguratu zuten. Herritar guztiak zeuden gonbidatuta irekierara eta bertan izan ziren, Marimi Ugalde herriko alkatea, Musika Eskolako haurrak, irakasleak, gurasoak eta zenbait herritar ere.

Jende guztia areto nagusian bildu ostean, Marimi Ugaldek hartu zuen hitza. «Pozik egoteko eguna dugu gaurkoa» esan eta Musika Eskolaren gaineko historia pixka bat gogorarazi zien herritarrei. Anoretan hasi zen Musika Eskola gaur egun jada, Iruran bertan dutela gogoraraziz. «84 ikasle ditugu jada aurten eta Kultur Etxean eta beste gela batzuetan ibili ostean, honelako eraikin baten beharrez gauden» gaineratu zuen. Esker-rak eman nahi izan zizkien pertsona ezberdinei, baina batez ere,



Bukatzeo, musika bandakoan saioa izan zen. E. MAIZ

txalo zaparrada bat eskatu zuen «hasiera-hasieratik Musika Eskolan egon zen eta orain ere gustura engongo zen Jabier Sarasarentza». Jarraian hitza, Musika Eskolakoiei pasa zien eta hauek ere «esker onak» eman zizkieten udalekoei beraiengan «konfidantza» izateagatik. Esker hitzak esanda, apaizaren bedeinkapena etorri zen.

Ondoren, Musika Eskolakoek abesten zuten bitartean, herriko dantza eskolako bi haurrek agurra dantzatu zuten eta zinta mozteko unea iritxi zen. Lan hori, Carmen Ameztok izan zuten, aspalditik, musikari lotuta egon delako Iruran. Behin, inauguratuta, Loatzo Musika Eskolako txanda izan zen. Lehenik eta behin abesti bat

abestu zuten eta ondoren, Herriko musika bandakoek abesti batzuk jo zituzten.

Honen guztiaren ostean, Musika Eskolako lokalak ikusteko aukera izan zuten bertaratutako guztiak eta jarraian baita lancha ere.

Irurako Musika Eskolak 82 ikasle ditu eta horrelako eraikin baten beharrez zeuden

Haur eta gazteak, gustura zeuden beraien Musika Eskola berriarekin eta ikusi eta estrenatzeko aukera izan zuten. Ondoren, behin irekiera eginda, gerturatu ziren guztiak lancha prestatua zuten Udalak.

224.775 euroko laguntza

Irurako Udalak, Musika Eskolaren proiektua gauzatzeko baliatu du Zapatero Plana bezala ezaguna den diru laguntza. Kulturunean dagoen eraikinean aurkitzen da eta astelehenetik aurrera ateak zabalik izango ditu. Irura herririk, 224.775 euroko diru laguntza izan du eta bost hilabetetan amaituko dituzte bertan egin beharreko lanak.

Lehenik eta behin, fatxada aldatu zioten eraikinari. Musika Eskola berria Gaztelekuaren atzean aurkitzen da eta sarrera bat egin zaio lehengo musika eskolako gelaren ondoan. Orain, guztira 145 metro karratu izango ditu. L formako, espazio handi bat du, intsonorizatutako bi gelaxo eta bulego moduan erabiltzeko gela bat. Espazio handi hori moldagarria izango da tabike batzuen bitartez. Bertan ekitaldiak egiteko aukera izango da, hau da, herriko areto bezala erabiliko da hemendik aurrera.

Egokituko diren gela eta espazioez gain, beste gela bat ere aprobetxatu ahal izango dute musika eskolakoek. Pediatrarentzako gela bat egokitu zuten, baina egun, ez da erabiltzen eta Musika Eskolako espazio nagusira ate bat ireki diote eta gela hau ere erabiltzeko aukera izango dute. Horrela, 145 metro koadro berriez gain, beste 25 metro koadro ere erabilgarri izango dituzte.

Beraz, 82 ikasleek eta etorkizunean etorriko direnek, musika eskola ederra izango dute eta ea musikari handiak izateko aukerarik duten.

**90 URTE BERRITZEN.
90 EGUN PREZIO HISTORIKOEN.**

APROBETXATU EZAZU UNE HISTORIKO HAU 2000E PLANAREKIN

SEGURTASUN OSOKO PLANA:

Arriko orotarako aseguru zure Citroen berrian, errekareru eta interesik gabe eta langabezi estaldura opari

GOZATU BAITA ERE C4, C4 PICASSO ETA C5 MILLENNIUM EREDUEN SERIE BEREZIAN. MYWAY NABIGATZAILEAREKIN.

CITROËN C3 **7.300€**etik

CITROËN C4 HDi **11.600€**etik

CITROËN XSARA PICASSO HDi **12.800€**etik

www.citroen.es

CITROËN

IROVI, S.A. KONZESIONARIO OFIZIALA CITROËN. INDUSTRIALGUNEA Z/G. • TEL.: 943 65 18 42. ANOETA / TOLOSA



Idazleak ere 'Egunkaria' ren alde

'EGUNKARIA AUZIA' • Egunkariaren epaiketaren aurkako elkarretaratzea egin zuten atzo hainbat idazle eta argitaletxeetako ordezkariak Donostian. Eskualdetik Anjel Rekalde eta Iratxe Etxebeite izan ziren bertan. Auzipetuek ere parte hartu zuten elkarretaratzean. Azkeneko asteetan euskal zinemako hainbat lagunek, kirolariak, politikariak eta bertsoariak egin dituzte auziaren kontrako elkarretaratzeak. HITZA

Udalak harrera egingo dio Edurne Pasabani

Tolosa » Mendizale tolosarrarekin hitz eginda dago, baina oraindik ez dute zehaztu noiz egingo den ekitaldia.

ERREDAKZIOA

Tolosako Udaleko Oscar Renedo kirol zinegotziak jakinarazi duenez, Edurne Pasaban mendizaleari harrera ekitaldia prestatzen ari da Udala. Renedok dioenez, Pasabanek «duen guztia ematen du es-

pedizio guztietan». Kirol zinegotziak gaineratu duenez, «Tolosarentzat ohorea, pribilegioa eta satisfazioa da Pasaban bezalako kirolaria izatea». Mendizalearekin hitz eginda dago harrera egitearena, baina oraindik zehaztu gabe dago noiz egingo den.

Renedok esan duenez, «erraza da omenaldiak eta harrerak antolatzea dena ondo ateratzen denean, baina momentu gogorretan ere egoten jakin behar da, dena eman ondoren helburua ez denean lortzen».

E Elkarrizketa GARBINE ORBEGOZO » Txintxarri abesbatzaren zuzendaria



JOXEMI SAIZAR

«Topaketak errespetu handia ematen digu»

Alegia » Nazioarteko Abesbatza Lehiaketaren barruan Topaketak izango dira gaur gauean; ekitaldian partaide izango da Alegiako Txintxarri abesbatza.

JOXEMI SAIZAR

Gaur 20:00etan San Frantzisko elizan aurtenko Abesbatza Lehiaketako lehen ekitaldia izango da: Topaketak. Lehiaketan parte hartzen ez duten eta maila polita duten taldeak izaten dira ekitaldi honetan. Gipuzkoako hiru abesbatza izango dira aurten: Oñatiko Gamarbara Abesbatza, Irungo Nayade eta Alegiako Txintxarri. Azken abesbatza hau 1960ean sortu zuen Jose Gastesik, beraz, datorren urtean 50 urte beteko ditu. 1990etik Garbiñe Orbegozo da zuzendaria. Urtean zehar, kontzertu ugari eskaintzen ditu herrian, Euskal Herrian eta kanpoan. Azken, aurreko larunbatean izan zen Alegiako San Juan elizan, Zumaiako San Pedro abesbatzarekin batera. Gure eskualdeko abesbatzaren zuzendariarekin mintzatu da HITZA.

Nola sortu zen parte hartzeko aukera?

Gipuzkoako Abesbatzen Federaziotik deitu ziguten parte hartzera gonbidatuz. Ez dakit nola egiten duten Topaketak saiorako aukeraketa, baina aukera bat eman digute eta, zalantza batzuen ondoren, aprobetxatu nahi izan dugu. **Zer moduzko harremana duzue**

Gipuzkoako Abesbatza Federazioarekin?

Orain hobe, agian gertuago dugu-lako, Tolosan duelako bere egoitza. Informazio asko jasotzen dugu bertatik: ikastaroak, elkartrukeak beste abesbatza batzuekin... Gero abesbatza bakoitzak egin behar du aukera.

Nola garatuko dira aurtenko Topaketak?

Abesbatza bakoitzak bere errepertorioa prestatuko du eta lehen zatian eskainiko du jendaurrean. Guk Tye-ren *Laudate nomen domini*, Mendelshonen *Alschied vom Walde*, Aita Donostiaren *Bortian*

«Elkarrekin abestu behar dugun obra bat konplikatuxeagoa da; bestea errazagoa»

«Betidanik izan da musikarako joera Alegian: txistulariak, mojetan, abesbatza...»

ahizki, Xabier Sarasolaren *Zure boza* eta Miguel Mari Azpiauren *Hego haizea*. Maite Oca irakasle eta zuzendariarekin bi obra prestatuko ditugu arratsaldean zehar hiru abesbatzak eta emanaldiaren bigarren zatian eskainiko ditugu: Julen Ezkurraren *Lurraren pian* eta Xabier Sarasolaren *Dabada*. Lehena konplikatuxeagoa da. Bigarrena, errazagoa eta polita. **Eta nola sentitzen zarete?** Maila handiko bi abesbatza izango ditugu ondoan eta horrek errespe-

tu handia ematen digu. Gure mailan, gure lana txukun egitera aterako gara. Gonbidapena jasota, eta Tolosako Abesbatza Lehiaketaren egitarauaren barruan dagoen ekitaldia izanik, erronka eta konpromisoa da guretzat.

Zein da gaur egun abesbatzaren egoera?

Guztira 32 partaide gara: 12 gizon eta 20 emakume. Iaz sartu ziren Txintxarri txikitik gazte batzuk eta zaharrenak 63 urte ditu. Jende gehiago hartuko nuke, baina zaila da. Urtero Eguberrietan *Aleluia* kantatzera animatzen ditugu herriarrak, baina inor ez da arrimatzten, nahiz eta Alegian jende askok jakin, abesbatzatik pasatu delako edo elizan entzun izan duelako urte askotan zehar.

Alegiaren neurriko herri gutxi izango dira 50 urte beteko dituen abesbatza dutenak.

Bai, halaxe da. Betidanik izan da musikarako joera Alegian: txistulari asko izan dira, D. Juan Zurriarrain parrokoak asko bultzatu zuen, mojetan ere irakasten zuten solfeo, txistua, pianoa eta horrelakoak. Joxe Gastesi gure lehen zuzendariak ere lan handia egin zuen abesbatzaren eta musikaren alde... Gure kontzertuak entzuteratzen jendea joaten da normalean. Mezetan, urteko lau jai nagusietan kantatzen dugu. Beti izan da zaletasuna. Baina adibidez, orain Txintxarri txikin haurrak falta dira.

Eta zerbait berezia egin beharko duzue urteurrena dela eta, ezta?

Bai, zerbait egingo dugu. Hasi gara horretan pentsatzen.

EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 2. alea



berriaren

harpidedun eta irakurleek

erdi prezioan 12€

Bete ezazu urriaren 18tik 31 bitartean BERRIAN argitaratuko den erreserba kupioa eta utzi zure kioskoan azaroaren 8a baino lehen.

BI ASTEREN BURUAN KIOSKO BEREAN JASOKO DUZU LIBURUA.

Laguntzailea
FAGOR

Aukera ezazu.
Bizi euskaraz
berria

Bengoetxea gaur eta Saralegi bihar, Lau t'erdiko Txapelketan ariko dira

Pilota » Bengoetxea leitzarrik Aritz Lasaren aurka du eta Saralegi amezketarrak Olaizola I.aren aurka.

IMANOL GARCIA

Lau t'erdiko Txapelketan lehiazten ari diren eskualdeko pilotariek asteburuan dituzte partidak. Bengoetxea VI. leitzarrik gaur du norgehiagoka Aritz Lasaren aurka Iruñean, Labriten, 17:00etan. Ekaitz Saralegi amezketarrak Eibarren du partida Olaizola I.aren aurka, bihar, Astelena frontoian, 17:00etan. Bai leitzarrik bai amezketarrak bat egiten dute bakoitzaren norgehiagoka «gogorra» izan dela esatean.

Bengoetxea VI.a «gustura» agertu da pilota aukeraketarekin. «Nire aldetik gustura nago. Ematen duenez Lasa pixka bat kexatu dan nire pilotetako bat azkarra delako». Leitzarrik kolpe askoko pilotak aukeratu ditu eta «material ona» dela uste du.

Aurrekoa Beroizen aurka 22-5 irabazi zuen eta oraingoa «gogorra» izango dela dio. «Ezberdinak dira Aritz Lasa eta Beroiz», azaldu du leitzarrik. «Lasa aurrelaria da eta errematatzailea. Pilotari ausarta da eta arriskatu egingo dela uste dut. Pilotari arrisksua da, errematean oso ongi ibiltzen da eta eskuinarekin indarra ematen dio».

Lasak lehenengo partida irabaztea zuen helburu eta partida honetarako ezarritako ez duela aterako da. Horrek zaildu egingo dio partida Bengoetxeari. «Bera lasa aterako da, agian ni baino lasaia», dio Bengoetxeak, «baina azkenean garrantzitsua da frontoian bakoitzak berea ematea. Gauzak ondo eginda eta sufrirituta ea partida aurrera ateratzen ahal dudana».

Txapelketari dagokionez, «beti izaten da ezustekorik» dio Bengoetxeak eta kirolak duen «gauzarik politenetakoa da denek aukerak dituztela eta edozeinek edozeini irabazi dakiokela». Lehenbiziko mailan dauden pilotari guztiek maila handia dutela dio Bengoetxeak.



Bengoetxea VI.a eta Saralegi pilotariak. HITZA



txeak eta, esaterako, Saralegi Xalari irabaziko zionaren konfiantza zuela dio: «Ekaitzek egia esan pilotan ikaragarri jokatzen du eta lehengoan horixe erakutsi zuen».

Saralegi ere gustura pilota aukeraketarekin

Pilotari amezketarrak azaldu duenez, bai bera eta bai Olaizola I.a «gustura» gelditu dira pilota aukeraketarekin. Frontisetik lau pilotak «igualtsu» ateratzen direla dio, baina bereak lurrean «baxuagoak»

direla gaineratu du. «Pilota nahiko indartsuak dira. Eibarren pilota gutxiago ibiltzen delako pilota aukeraketara pilota gehixeago sartzen dute».

Horrelako materiala Olaizola-arentzat ona izaten dela dio Saralegi, baina Xalarekin izandako partidak ekarri du gogora: «Nik pilota pilsua atera nuen eta niri hobeto joan zitzaidan. Askotan frontoira joan eta batek bestearena ateratzen du».

Xalari irabaztean ezustekoa

eman zuen Saralegik aurreko aste-buruan. «Partidan zehar Anizetok asko lagundu zidan, tantotik tantoraburuarekin jokatuz. Nik uste dut partida ona egin nuela eta berak ez hainbestekoa». Orain, Olaizolarekin jokatuko behar duenean, Xalaz ere gogoratu da: «Xala pilotari indartsua da eta Asier ere berdin. Betera indartsu ematen dio Asierrek eta saiatu beharko dugu ahal duen gutxienez sartzea eskuinarekin eta ezkerrean erasotzea». Saralegik bere joku klasikoak egiten saiatu behar duela dio: «Ahal dudanean tantoa bukatzen saiatu agudo eta bestela bere bonbardaketari eutsi».

Sakea garrantzitsua izango da amezketarren ustez: «Beldurra ez diot sakeari, baina beti kontu hori izan beharra dago. Saketik berak eta nik ere bai mina egin dezakegu eta ikusi beharko dugu ea zeinek errestatzen duen hobeto».

Irabazten badu biharkoa, Titinen aurka jokatuko luke, amezketarrentzat berezia izango zen partida: «Hasi nintzenetik Titin ikusten nuen nola sartzen zen airez eta beti ikaragarri gustatu zait nola jokatzen duen. Oso polita izango litzateke Titinen aurka jokatzea, baina aurretik lan asko daukat, igandean partida oso zaila daukat eta horri begiratu beharko diot».

Pilotari ohiak berriz elkartuta

ERREDAKZIOA

Aurreko larunbatean berrogei lagun bildu ziren Alegiako Txintxarri jatetxean. Berrogeita hamar eta hirurogeita bost urte arteko jendea zen. Bere garaian pilotariak izan zirenak. Askok urteak zeramatzen elkar ikusi gabe eta oso momentu politak bizi izan zituzten.

Batzuk afizionatu bezala eta beste askok profesional bezala eman zituzten beren kirol bizitzak. Gehienak gipuzkoarrak ziren baina izan ziren hainbat bizkaitar ere. Izan ere, jaiotzez bizkaitarra den eta aspalditik Alegian bizi den Zarrabeitia izan zen hori guztia antolatzen zuena.

Han ziren besteak beste tolosaldeko Lazkano, Amundarain, Zabalza, Urretabizkaia, Gabellanes,



Bazkaltzen elkartu ziren zenbait pilotari ohi. HITZA

Azkoitiako Atanok, Ansola, Segurako Aranburu, Telleria eta abar. Ez zen falta izan bertso eta kanturik ere. Pilotari ohi asko bildu ziren

arren ezin izan zituzten nahi adina elkartu eta beste batean elkartzeko asmoarekin amaitu zuten arratsaldean.

Aurrera-Saiazeko lau partida gaur, etxean

Pilota » Guztira zazpi partida jokatuko dituzte; etxeok Beotibarren dira eta goizean eta arratsaldean ariko dira.

ERREDAKZIOA

Aurrera-Saiazeko pilotariak zazpi partida jokatuko dituzte gaur, horietatik lau Tolosako Beotibar frontoian. Etxeko partida horietan, 11:00etan hasita bi partida jokatuko dira. Lehenengoan 3. mailako nagusietan Zestoaren aurka jokatuko dute eta bigarrenago nagusi mailako 2. mailakoek Arrasatekoaren aurka jokatuko dute.

Beotibarren arratsaldean ere partidak izango dituzte Aurrera-Saiazekoek. 17:00etan hasita bi partida izango dira. Lehenengoan nagusi mailakoan banaka, Gaztelekuren aurka ariko da Aurrera-Saiazekoa. Bigarrenago, ohorezko nagusietan Ilunpe izango dute aurkari.

Kanpoan hiru partida izango dituzte pilotariak. Andoainen Gaztelekuren aurka jokatuko dute jubenetan banaka, 10:00etan (bigarrenen partida). Hernanin lehen mailako nagusiek jokatuko dute 10:00etan (hirugarren partida). Eta Usurbilen 2. mailako jubenek jokatuko dute, 10:30ean (hirugarren partida).

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01
(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 beheak • 20400 Tolosa
Herriki plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

E **Elkarrizketa**

JON MINTEGIAGA › 'El Filtro' liburuaren egilea

«Ahaztutako istorio handi hau betikotu nahi genuen»

Ibarra » 15 urte bete dira aurten Uruguayko hiriburuko Filtro ospitale aurreko sarraskia izan zela.

REBEKA CALVO

Jon Mintegiaga ibartarrak *El Filtro. Memorias de los refugiados vascos en Uruguay* (Txalaparta, 2009) kaleratu berri du. Liburu dokumental independenteak egiten dituen Uruguayko talde batek egindako DVD batekin batera eskura daiteke. Lanak 1994. urteko abuztuaren 24ean Montevideon izandako sarraskia du ardatz; poliziak Josu Goitia, Luis Mari Lizarralde eta Mikel Ibañez euskal presoan estradizioaren aurka ari ziren ehunka lagun zauritu zituen eta bi gazte ere hil zituen, Fernando Morroni eta Roberto Facal.

Zer gertatu zen Montevideon 1994. urteko abuztuaren 24ean?

Preso euskaldunak abuztuaren 24ean 18:00etan estraditatuak behar zituzten. PIT-CNT sindikatuak eta beste zenbait taldek hau salatzen zuten eta beste lehenago ospitale aurrean elkarretaratzea egitea erabaki zuten. Milaka lagun bildu ziren ospitale aurrean polizia adi zutela. Poliziek izan zituzten elkarrizketetan hauek ez zela erasotuko esan zieten eta kargaren bat eginez gero abisatu egingo zirela ere esan zieten. Baina hori hitz egiten ari ziren momentuan bertan poliziak atzetik kargatu zuten, bi toki desberdinetatik, zaldien gainetik, makilekin, porrekin, gasa botaz, txakurrekin... Manifestariak korrika alde egin zuten, baina poliziak maltzurkeriaz jokatu zuten eta kale bateko bi muturretan jarri ziren jendea taberna eta saltokietan sartu zirelarik babesteko, autobusak konpontzen dituen enpresa oso ezagun batean ere sartu behar izan zuten. Hala ere, dozenaka herritar zauritu zituzten.

Zein unetan hil zuten Fernando Morroni?

Behin lehendabiziko karga hori eginda, jendea berriz ere ospitale aurrean bildu zen. Segurtasun he-



R. CALVO

sia kendu zuten ordurako eta poliziak ere desagertu egin ziren. Baina oraindik ere larriena gertatzeko zegoen. Izan ere, barne-ministroak, Angel Maria Gianolak, anbulantziak bidali zituen manifestariak engainatzeko. Anbulantziak hutsik zeuden, manifestariak euskaldunak hor zeudela pentsatzea nahi zuten. Baina manifestariak konturatu egin ziren eta anbulantziak manifestarien erditik pasatzen ari zirela, kaleko argiak itzaldu zituzten eta polizia jendeari tiro egiten hasi zen. 20 lagun zauritu zituzten balaz eta bestelako ehunka zauritu ere izan ziren. Fernando Morroni manifestaria orduan hil zuten.

Atxilotu al dute hiltzailea?

Bere amak, Normak, hiltzailea zein izan zen jakiteko prozesua abiarazi zuen. Epaiketa ere izan zen, baina Jorge Imas epaileak hiltzailea poliziaren artean dagola onartzen badu ere elkar babesten dutenez pertsona hori ezin duela identifikatu esan zuen. Norma azken 15 urteetan justizia eskatzen eta Filtroko sarraskia salatzen ari-tu da. Gobernuak sekulako dirutza eskaini zion, kalte ordain gisa edo, baina berak ez du dirurik nahi erantzukizun politikoa azalaraztea baizik.

Eta bigarren hildakoa, Roberto Facal?

Bigarren hildako bat egon zen ere manifestaldian, goizeko ordu txikietan baizik. 02:00ak aldera erail zuten Roberto Facal. Bere etxe kanpoaldean hil zuten eta

etxe barrura ere sartu ziren. Poliziak delinkuentzia arrunta izan zela esan zuen, baina bertako jendeari eta senitartekoen ustez hilketak lotura zuzena du Filtroko sarraskiarekin.

Zergatik?

Roberto Facal ezkerreko militantea zelako, bi urte horietan euskaldunen aldeko mobilizazioetan hartu zuen parte eta Filtroko gertakarietan bere etxea gertu zegoenez matea ematen zuen, janaria... Etengabe bere argazki-kamerare-

kin zegoen argazkiak ateratzen... Eraiketa eta gero argazki-kamera hori ez zen azaldu, bere etxe aurrean jarritako dolu-xingoladun ikurrina ere desagertu egin zen, Che-ren argazkia, gertakari politikoe-kin osatutako argazki-albuma...

Zergatik hasi zen Uruguay iheslarien aurka?

Liburuan bi sarrera daude, Jose Mari Espartza Txalapartako editorearena bata eta Joseba Agudo abokatuak idatzitakoa, bestea. Agudok oso ondo kokatzen du istorioa. 89. urtean, Argeleko negoziaketak porrot egitean, Espainiako Gobernuak gatazkak luze joko duela ikusten du eta ordura arte ireki gabe zegoen fronte bat ireki zuten, iheslarien aurkakoa.

Nola bizitu ziren gertakariak Euskal Herrian?

Ni mutil koskorra nintzen orduan. Ibarra abuztuaren 24ean, festetan, manifestazioa egin zuten, Uruguayko banderakin eta nik hori oso argi gogoratzen dut. Tolosan orain dela gutxi botatako kirroldegi zaharrea ere Uruguayko herritari eskerrak emanez pintada egon da orain arte, bota duten arte. Orain dela 15 urte Euskal Herrian

mobilizazioak egin ziren Uruguayri elkartzasuna adierazteko. Baina 15 urte pasa dira eta istorioa ahaztu samar zegoen. Gure helburua istorio handi hau gogoratu arazi eta betikotzea izan da.

Nola izan zen liburua idazteko prozesua?

Euskal Herrian bertan informazio asko zegoen eta hori dena eman zidaten irakurtzen joan eta hautaketa egiten joateko. Bestetik, ia zoko abuztuaren Uruguayra joan nintzen prozesu guztia bertatik bertara ezagutzeko. Elkarrizketak egin nituen, informazio desberdina bildu, urtero abuztuaren 24ean egiten duten manifestaldian ere egon nintzen, prestaketa bileretan... Orduko Barne Ministroarekin, Angel Maria Gianolarekin, elkarriztatzea ere lortu nuen.

Kapitulua osoa ere eskaini diozu elkarrizketari.

Gehigarri bat eskaini diot eta joko handia ematen duen elkarrizketa da. Berak argi hitz egiten du sarraskiaren inguruan. Sarraskia justifikatu egin zuen eta datu berriak ere eman zizkidan. Adibidez, Roberto Facalen hiltzaileen datuak eman zizkidan. Uruguayko jendeak ez zeuzkan datu hauek. Bere hitzetan delinkuentzia arrunta izan zen eta izen abizenak ere eman zizkidan. Era berean, uste duela espetxean daudela ere esan zidan. Uruguayri jendeak dudatan jartzen du, hala ere, baina ikerketarako bidea ere irekitzen du, behintzat.

Uruguay eta estradizioa



R.C.

«Uruguayk ez du sekula inor estraditatu arrazoi politikoengatik», dio Jon Mintegiagak. Nabarmendu beharrezko zerbait da, izan ere «asil politikoa ematen tradizio handiko» herrialdea da. «XX. mende hasieran ez zituzten anarkista italiarrak estraditatu, Argentinako militar eta diktadoreak ere ez...», gogoratu du ibartarrak.

Zein testuingurutan kokatu behar dugu 1994. urteko abuztuaren 24ko sarraskia?

Uruguayn ihesian zeuden euskaldunak zeuden, bizitza publikoa egiten zuten, jateke bat zeukaten, eta 1992ko maiatzaren 15ean polizia jatekera sartu eta makina bat euskaldun atxilotu zituen. Guztira 30 bat izan ziren atxilotuak, bai iheslariak eta baita beraien lagunak ere. Orduan hasi zen Espainiara estraditatzeko prozesua.



Zer gertatzen da 1992tik 94ra?

30 atxilotu hauetatik, 11ra pasa ziren gero eta hauetatik 8ren estradizioa eskatu zuten eta azkenean hiru geratu ziren. Estradizio hauek posible diren edo ez aztertzen, epaileek, bi urte eta hiru bat hilabete pasa zituzten. Denbora honetan, hala ere, gauza asko gertatu ziren, juridikoki, batik bat, epaileek zailtasun asko zituztelako Uruguayko legeen arabera iheslari hauek Espainiara estraditatzeko. Uruguayk ez du sekula inor estraditatu arrazoi politikoengatik. Euskaldunen kasuan, hala ere, tradizio hori hautsi egin zuten, orduko gobernu eskuindarrak Espainiako PSOEko Gobernuarekin batera euskaldunak estraditatzeko erabakia hartu zuen. Atxilotetako baino aste pare bat lehenago Uruguayko lehendakariak eta Felipe Gonzalezek Gobernuak 30.000



milioi pezetako hitzarmena sinatu zuten. Atxilotetak hor kokatu behar ditugu.

Eta hiru presok gose greba egitea erabaki zuten orduan...

Bi urtetako prozesu honetan guztian azkenean, 8 estradizio eskararik 3 gauzatzea erabaki zuten. Hiru euskaldunak gose grebari ekin zioten orduan, eta behin gose greba hasita fiskalak prozesua bizkortzeko egiten duen azpajokoa dela medio euskaldunek egarri greba ere egitea erabaki zuten, ondorioz egun gutxitako bizia gertatzen zitzaielarik. Honekin Uruguayko Gobernuak erabaki bat hartzea behartu zuten: asilo politikoa eman, ez, edo zuzenean Espainiaren eskuetan utzi. Egoera honen aurrean Uruguayko herritarrek geroz eta babes handiagoa eskaini zioten hiru preso euskaldunei.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Su egurra.** Su egurra salgai. 20,30 eta 40 zentimetrotarako moztua. Etxera eramaten dugu. Harremanetarako deitu 615 755 762 telefono zenbakira.

LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulgoako eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe: 638 944 604 (Gurutze) edo 695 708 271 (Belen)



LABen aldaketa proposamena eta manifestazioa

LEITZA • Nafarroako Alternatiba Sindikala aurkeztu zuen atzo LAB sindikatuak Leitzan. Lehenik, Karrapen erakusketa bat jarri zuten, «gizarte eredu honetan langileak beti galtzaileak izan direla adierazteko». Ondoren

Alternatiba Sindikala aurkeztu zuten. Bertan esandakoaren arabera krisiak agerian utzi du duela 30 urte, Foru Hobekuntzaren bidez, «adarra jo zigutela. Izan ere, Miguel Sanz jaunak 400 euroko afariak egiten dituen bitartean

Nafarroako langileen egoera oso larria da». Datu ekonomikoak eta alternatiba bera www.nafarroagorria.org web orrian aurkitzen dira. Azkenik, hilaren 31n Iruñean egingo duten manifestaziorako deia egin zuten. A. IMAZ

Emakumeen Batzordea sortuko du Leitzaldeko Bilgune Feministak

Gizartea » Atzo aurkeztu zituzten ikasturte berrirako erronkak; hiru helburu eta bi ekimen nagusi azpimarratu zituzten.



Bilgune Feministaren laugarren ikasturtearen aurkezpena Atekabelzen. A.I.

ASIER IMAZ

Leitzaldeko Bilgune Feministako kideek, atzo aurkeztu zituzten Atekabeltz gaztetxean ikasturte berrirako helburuak. Horien artean hiru nabarmendu zituzten: Emakumeen sarea indartzea, horretarako batzorde bat sortuz; taldearen hedapena eta borroka feministaren kontzientziazioa gaintzeko herri eragileen artean.

Laugarren ikasturtea

Leitzaldeko Bilgune Feminista «eskualdean hutsik zegoen espazio bat betetzeko beharrak» sortu zuten, hau da, «hainbat arlotan ikuspegi feminista txertatzeko beharrak».

Azken urteetako ekimenekin ja-

rraitzeko asmoa azaldu zuten atzo laugarren ikasturtearen aurkezpen ekitaldian. Lan hau aurrera eramateko, hiru helburu nagusi dituen plangintza osatu dute.

Horien artean aurkitzen da hileko elkartuko litzatekeen Emakumeen Batzordea: «Konturatzan

gara emakume feministak egon bagaudela eskualdean. Baina ez dugu denak biltzeko espaziorik, lekurik. Beraz, emakume batzordea fisikoki urruti, baina izatez hain gertu egonik, hitz egiteko, hausnartzeko, ekimenak antolatzeko... eremu bat izatea nahi dugu».

Bi egitasmo garrantzitsu

Bilguneko kideak indarberriturik daude 4. ikasturtearen hasieran: «Emakumeon eskubideen aldeko defentsan, urteetako aldarririkape-nei jarraitu eta egunerokotasunean sortzen diren beharrei erantzuteko indarberrituta gatoz. Emakumeenganako indarkeriaren aurka, abortu eskubidearen alde, emakumeon lan baldintza duinen alde, sexualitatea askatasunez bizitzearen alde... lanean jardungo dugu».

Azkenik, ikasturte berri honen garrantzia azpimarratu zuten, bere baitan bi egitasmo handi ospatuko baitira: «Alde batetik, abenduaren 12an Emakume Aberztaleen IV. Topaketa Feministak egingo ditugu Tolosan. Bestalde, 2010eko martxoan, Euskal Herriko kaleak kolore morez jantziko ditugu Emakumeon Mundu Martxan; arraza, kolore, kultura eta herrialdeen egoera politikoez gaindi, emakumeok gure eskubideen aldeko defentsan martxan jarri ginetuen ekimenean».

Amazabal pilotalekuan zortzi pilota partida jokatuko dituzte gaur

Leitza » Nafar Jokoen baitako partidak 10:00etan hasiko dira Amazabalen. Gartzaronen berriz finalak jokatuko dituzte.

A. IMAZ

Aurrera Pilota Eskolako pilotariak hainbat partida jokatuko dituzte gaur eta bihar.

Alde batetik, Leitzako Amazabal pilotalekuan, Nafar Jokoei 8 partida jokatuko dituzte gaur, 10:00etatik aurrera.

Bestalde, Gartzarongo Txapelketako finalak jokatuko dira gaur. Infantilen mailan Aurrerako bikoteak jokatuko du finala, Olano-Tolosak hain zuzen ere. Titin III.a Txapelketan, Errioxan, Olano-Pagautek eta Dario-Tolosak finalerdietako partida jokatuko dute bihar. Burlata, Lizarra eta Nafarroako Kluben arteko txapelketetan ere Aurrerako pilotariak partidak jokatuko dituzte asteburuan.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Arnas Errehabilitazioaren ondorioez

TOLOSA ■ Arnas Errehabilitazioari buruzko lehen jardunaldia izan zen atzo goizean Asuncion Klinikak antolatuta Kultur Etxean. Medikuntza arloko hainbat adituk hartu zuten parte bertan, eta Arnas Errehabilitazio

programak dituen ondorio onuragarrien berri eman zuten. Hau Bizkaian hasi ziren erabiltzen, eta izan dituen emaitzak ikusita zabaldu zuten. Gipuzkoan Asuncion Klinikak izan da aitzindaria. **EZEZA**

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

A Agenda

Deialdiak

■ **Anoeta.** Eskualdeko gazterien Independentzia Eguna. 10:00: herriko trikitilari eta panderojoleen kalejira; 11:00: mahai inguruua udaletxean, ondoren mural margoketa; 14:00: gazte argazkia eta bazkaria; 16:30: sasi olimpiadak; 18:00: kalejira aldarrikatzailea herrian zehar, ondoren poteoa; 22:00: Neguri Gorriak eta Banda Batxoki Gaztetxean; ondoren Aritz Sound System.

Quark saioa. **11:00-13:30.** Tolosaldeko Ahotsa: Albistegia, Magazina, Lehiaketa eta disko eskainiak. **13:30-14:00.** Albistegia - Info 7. **14:00-15:00.** Tolosaldeko Albistegia. **17:00-17:45.** Musika nobedadeak. **17:45-18:00.** Elhuyar Fundazioa Quark saioa. **18:00-20:00.** Tolosaldeko Ahotsa (errepikapena). **20:00-20:30.** Albistegia, Info 7.

» TELEBISTA

28 kanala

08:30. Ur eta lur **09:00.** Muka muka **09:30.** Tolosaldean Gaur **10:00.** 28 klip **10:30.** Ilunpean **11:00.** Saio berezia: Elizondo **11:30.** Tolosaldean Gaur **12:00.** Klipak **12:30.** Zahar berri **13:00.** Nonochan **13:30.** Tolosaldean gaur **14:00.** Kale kanto **14:30.** On ein! **15:00.** Sakonduz **15:30.** Tolosaldean Gaur **16:00.** Artegitza. *(12:30etik 16:30era bitarteko blokea lau ordu errepikatuko da).

Zinema

■ **Tolosa.** Leidor zinema: 19:30ean eta 22:30ean, *Agora*.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

» IRRATIA

Txolarre irratia
10:45-11:00. Elhuyar Fundazioaren

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.



hitza berria

VI. Euskal Kirolaren Eguna

Tolosako Usabal Kiroldegia

Urriak 25
11:00 / 15:00

Euskal Federazioen ibarduerak, txapelketak eta erakustaldiak

Euskal Kirolaren alde Federatu zaitez!

Proiektuaren koordinatzailea
0932 5450 6761 - 5952